



Koordinaziorako Idazkaritza Teknikoa
Secretaría Técnica de Coordinación

Príncipe, 5 - 7. solairua. 702 bulegoa
48001 Bilbao
Tfnoa.: 944 245 656
Fax: 944 232 663
sarea@ikerpartners.com

SAREA EUSKAL ANTZOKIEN SAREKO PANORAMIKA:
EAEko espazio eszenikoak laguntzeko
erakunde arteko plataforma

-2017 Txostena

Aurkibidea

Aurkezpena	3
1.- Sareako antzokien karakterizazioa	4
2.- Eraitza orokorrak EAE esparruan	5
2.1.- Jarduera adierazleak	5
2.2.- Adierazle ekonomikoak	6
3. Antzokiari loturiko aldagaien araberako eraitzak	7
3.1. Antzoki mailen araberako eraitzak	7
3.2. Lurralde Historikoaren araberako eraitzak	10
3.3.- Udalerriaren tamainaren araberako eraitzak	12
4. Jarduerei loturiko aldagaien araberako eraitzak	14
4.1. Generoaren araberako eraitzak	14
4.2. Ikusle motaren araberako eraitzak	17
4.3. Hizkuntzaren araberako eraitzak	19
4.4.- Konpainiaren jatorriaren araberako eraitzak	22
5. Gehien programatutako ikuskizunen Ranking	25
6. Metodologia, analisi aldagaiak eta adierazleak	26
6.1.- Apunte metodologikoak	26

Aurkezpena

Dokumentu honek, SAREA antzokien sareko eremuan 2017an lortutako jarduera emaitzak eta emaitza ekonomikoak aurkezten eta aztertzen ditu.

SAREA Euskal Antzokien Sarea, 1993. urtean sortua, erakunde arteko entitatea da eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, Foru Aldundietako kultura sailek eta Euskal Autonomia Erkidegoko Udalek osatzen dute. Gaur egun, SAREA titulartasun publikoko 61 antzokiz eta aretoz osatuta dago, eta haren eginkizunak kalitatezko eta intereseko arte eszenikoetako programazio egonkorra koordinatzea, bultzatzea eta hedatzea dira, giza zein ekonomia-baliabideak optimizatuz eta arte eszenikoetako eremuan publikoa sortuz eta trebatuz.


Txosten honetan sareko antzokiek 2017. urtean zehar izandako jarduerari buruzko zifra nagusiak aurkezten dira, eta aurreko ekitaldiekin alderatuz, bilakaera. Txosten honen helburua, antzokiei ondorengo faseetan programazio-lana erraztuko dien urteko tresna eskaintzea da, eta baita sektoreari nahiz gizarteari oro har EAEko arte eszenikoen eremuan erakusketaren egoera ezagutzera eramatea ere.

Azkenik, Idazkaritza Teknikoak esker ona adierazi nahi die programatzaile guztiei eta Sareako gainerako kideei, eskaintako laguntzagatik eta gure informazio-eskaerei erantzuteko adierazi duten pazientzia amaiezinagatik.

ESKERRIK ASKO

1.- Sareako antzokien karakterizazioa

SAREako antzokien banaketa formatuaren arabera



SAREAn dauden Antzoki kopuruaren bilakaera

Urtea	1997	2005	2010	2015	2016	2017
Sareako antzoki kopurua	29	40	50	61	61	61

SAREA, EAEko kultura-ehunean haren agerpena finkatuz doan erakunde arteko plataforma, titulartasun publikoko 61 antzokiek eta aretoek egun osatutako sarearen bitartez

Bilakaerari erreparatuta, urteen poderioz SAREA euskal udalerrien kultura-dinamizaziorako ezinbesteko tresna gisa finkatuz joan da, 1997an titulartasun publikoko 29 antzokiz eta aretoz osatuta egotetik, 2016an 61ek osatzera pasatuz. Haren eragina, euskal hiru hiriburuetan ez ezik, hiru Lurralde Historikoetan banatuta dauden tamaina guztietako 51 udalerritan eman ohi da..

Zehazki, sareko antzokien eta aretoen zati handiena erdizka kokatzen da Gipuzkoan eta Bizkaian (%48 eta %39 hurrenez hurren), eta neurri txikiagoan Araban (% 13). 2017an Bizkaiak bi antzoki galdu ditu, Gipuzkoan bat batuz. Arabak aurreko urteetako antzoki kopurua mantentzen du.

Antzoki eta areto gehienak (%44) 7.500 eta 25.000 biztanleren bitarteko udalerrietan kokatzen dira.

Sareak lau mailatan sailkatzen ditu antzokiak formatuaren arabera (hiriburuak, A maila edo handiak, B maila edo ertainak, C maila edo txikiak). Sailkapen horri jarraituz, **sareko antzokien erdia formatu txikikoak -C maila- dira** (urtean 20 emanalditik behera egin ohi dute eta 50.000 €-tik behera gastatzen dute kontratazioetan). Bestalde, laurden bat (% 26) formatu ertainekoak -B maila- dira (urteko emanaldi kopurua 20-50 bitartean dago eta kontratazio gastua 50.000€-200.000€ bitartean). Gainerako antzokiak -A maila- hiriburuetan edo haien metropoli-barrutian kokatzen dira eta horien urteko emanaldi kopurua eta kontratazio gastua askoz ere handiagoak dira (50 emanalditik eta 200.000€tik gora).

2.- Emaidza orokorrak EAE esparruan

2.1. Jarduera adierazleak

2017. urtean 500.000 ikusletik gora gerturatu dira programatutako 1.831 emanaldietara

Sarea sare esparruan, 2017an, 1.831 emanaldi programatu dira, eta bertara 518.300 pertsona bertaratu dira. Datu hauek adierazten duten bezala, ikusle kopurua %6,6 hazi da aurreko urtearekiko. Hala ere, emanaldiko ikusle kopuruaren ratioa murriztu egin da, 283 ikusleetan kokatuz, 2016an lortutakoa baino %6 gutxiago..

Goranzko joera eskaintza eta publiko kopuruan

2013-2017 aldiko bilakaeraren analisiaren arabera, emanaldi kopuruaren eta antzokietara bertaraten diren ikusleen kopuruaren hazkundea nabarmentzen da Emanaldiko ikusle kopuruaren ratioa ere hazi da 2013ari dagokionez, emanaldi bakoitzeko batz besteko 16 ikusle irabaziz.

Jardueraren adierazle nagusien bilakaera 2013-2017

Adierazlea	2013	2014	2015	2016	2017	2016-2017	2013-2017
Emanaldi kopurua	1.728	1.738	1.613	1.633	1.775	%8,7	%2,7
Ikusle kopurua	468.517	503.297	457.372	503.237	509.156	%1,2	%8,7
Ikusleak emanaldiko	271	290	284	308	287	-%6,9	%5,8

Oinarria: 50 antzoki*

* Vitoria-Gasteiz 5 antzoki eta Gernikako 2, eta Zumarraga eta Urretxuko antzokiak ere, antzoki bakar gisa zenbatu dira kasu bakoitzean.

2.2. Adierazle ekonomikoak

Adierazle ekonomiko nagusien bilakaera¹

Adierazlea	2013	2014	2015	2016	2017
Diru-sarrerak emanaldiko	1.219,00 €	1.323,00 €	1.350,00 €	1.436,00 €	1.329,00€
Diru-sarrerak ikusleko	7,50€	7,40€	7,70 €	7,90 €	7,00€
Kostuak emanaldiko	3.238,00 €	3.209,00 €	3.422,00 €	3.406,00€	3.342,00€
Kostuak ikusleko	19,90 €	17,80 €	19,50 €	18,80 €	17,60€
Kostuen estaldura %	%37,6	%41,2	%39,5	%42,2	%39,7

Adierazlea	2016- 2017	2013-2017
Diru-sarrerak emanaldiko	-%7,5	%9,0
Diru-sarrerak ikusleko	-%12,0	-%6,6
Kostuak emanaldiko	-%1,9	%3,2
Kostuak ikusleko	-%6,6	-%11,5

Oinarria: 44 antzoki*

* Ez dira sartu, Antzoki Zaharra, Victoria Eugenia, Arriaga eta Gasteizko antzoki Sarea, antzoki hauen informazio Ekonomikorik ez dugulako. Ezta ere beste 5 antzoki, bilakaeran agertzen diren urte zehatzetako informazioa falta delako

Ikuskizunen errentagarritasunaren jaitsiera arina

Adierazle ekonomiko guztiak beheraka egin dute 2017an aurreko urtearekin alderatuz:

- Emanaldiko txarteldegiko batez besteko diru-sarreraren kasuan, emanaldiko ikusleen batez besteko zifraren jaitsierak emanaldiko diru-sarreraren zifra ere murriztea ekartzen du. Balio absolutuetan, emanaldiko batz besteko 107 euro gutxiago suposatzen du eta ia euro bat ikusleko.
- Emanaldiko batz besteko kostuek, neurri txikiagoan murriztu diren balio ekonomikoak dira, %2 inguru.
- Aurreko emaitzen ondorioz, emanaldien errentagarritasun ekonomikorako marjina txikiagotu egin da, horregatik kostu estaldura tasak bi puntu eta erdi galdu ditu, %40aren azpitik kokatuz, eta aurreko ekitaldiari dagokionez programazioaren auto finantzaketaren maila txartzuz.

Bestalde, azken 5 urteetako bilakaerari erreparatuz, emaitzak positiboagoak dira, emanaldien diru-sarrerak kostuak baino gehiago haziz.

¹Ez dira sartu hiriburuetakoko antzoki handiak, ezta aztertutako bilakaera urteren batean informazioa eman ez zuten beste 5 antzoki erez..

3.- Antzokiari loturiko aldagaien araberako emaitzak

3.1. Antzoki mailen araberako emaitzak

A. Jarduera adierazleak

Formatu txiki eta ertaineko antzokiek SAREaren eskaintza eszenikoaren ia erdia eta ikusle kopuruaren laurdena baino pixka bat gehiago hartzen dute

SAREaren eskaintzaren %41a hiriburuetakoa antzoki handietan biltzen da, honekin lotuta, emanaldi bakoitzeko batez besteko ikusleen bertaratze kopuru handiena lortzen dute (emanaldi bakoitzeko 425 ikusle); hortaz, SAREako ikusle guztien %62 erakartzen dute.

Hiriburuetatik kanpo kokatuta dauden formatu handiko antzokiek (A mailako antzokiak, 50 emanaldi baino gehiago eta 200.000 €-ko kontratazioa gainditzen dituztenak) 2017an emanaldi guztien %13a programatu zuten eta SAREako ikusleen %11a erakarri zuten. Hau esanguratsua da maila honetan 4 antzoki soilik daudela kontuan hartuta.


B eta C mailako antzokiak, 50 emanaldi baino gutxiagoko urteko eskaintza eta 200.000 € baino gutxiagoko aurrekontua dutenak, 840 emanaldi eta 138.500 ikusle lortu zituztelarik, oso esanguratsuak izan dira bi ikuspegiaren arabera. Alde batetik, herritarrei arte eszenikoen gerturaketan eta publiko berrien sorreran oso garrantzitsuak izan direlako, eta bestalde, Euskadiko sektorearen mantentze eta iraunkortasunerako lan garrantzitsua egin dutelako, programatutako 10 emanalditatik, 8 euskal konpainien ikuskizunak izan baitira. Hala ere, edukieraren aldetik azpiegitura apalenak dituztenak dira oro har, eta ikusleen batez besteko bertaratze kopuru baxuenak izan ohi dituzte, emanaldi bakoitzeko 193 ikusle, B motatako antzokien kasuan eta C-koak 134, hain zuzen.

Antzoki mota guztietan batez besteko ikusle kopurua gutxitu egin da


2016ko emaitzekin alderatuta, emanaldi bakoitzeko batez besteko ikusle kopuruak jaitsiera arina izan du antzoki mota guztietan tamaina ertaineko antzokietan izan ezin, hauek %8an igo baitute batzuetan. Azken 5 urteetako bilakaera terminotan, hiriburu inguruetan kokatutako formatu handiko antzokien emanaldi bakoitzeko ikusle kopuruaren zifraren jaitsiera nabarmentzen da, nahiz eta jaitsiera honek ez du emanaldi bakoitzeko ikusle ratio eragiten, ikertutako ekitaldian 14 ikusle irabazi baititu eta. Edonola ere, bilakaera datuak aztertzerakoan, 2016 urtean metodologian egin zen aldaketa gogoan izan behar da, tamaina handieneko antzokiek, oro har, Foru Aldundien diru-laguntzarik gabe programatzeko ahalmen handiagoa dutelako.

2017 Emaitzak

Emanaldi kopurua: 1.831



Ikusle kopurua: 518.300



2013-2017 Bilakaera

Adierazleak	Urtea					Bilakaera	
	2013	2014	2015	2016	2017	16-17	13-17
Emanaldi kopurua							
Hirietako antzokiak	681	638	667	672	757	%12,6	%11,2
Formatu handiko antzokiak	281	275	281	234	234	%0,0	-%16,7
Formatu ertaineko antzokiak	429	445	383	444	439	-%1,1	%2,3
Formatu txikiko antzokiak	337	380	282	283	345	%21,9	%2,4
Ikusle kopurua							
Hirietako antzokiak	295.860	303.246	289.345	327.380	321.422	-%1,8	%8,6
Formatu handiko antzokiak	66.126	64.487	65.457	59.800	58.362	-%2,4	-%11,7
Formatu ertaineko antzokiak	70.140	89.590	68.570	79.315	84.890	%7,0	%21,0
Formatu txikiko antzokiak	36.391	45.974	34.000	36.742	44.482	%21,1	%22,2
Emanaldiko ikusle kopurua							
Hirietako antzokiak	434	475	434	487	425	-%12,8	-%2,3
Formatu handiko antzokiak	235	234	233	256	249	-%2,4	%6,0
Formatu ertaineko antzokiak	163	201	179	179	193	%8,2	%18,3
Formatu txikiko antzokiak	108	121	121	130	129	-%0,7	%19,4

B. Adierazle ekonomikoak

Adierazle ekonomikoen bilakaera 2013-2017

Adierazleak	Urtea					Bilakaera	
	2013	2014	2015	2016	2017	16-17	13-17
Diru-sarrerak emanaldiko							
A mailako antzokiak	2.408	2.480	2.423	2.744	2.841	%3,5	%18,0
B mailako antzokiak	1.010	1.251	1.162	1.297	1.119	-%13,7	%10,8
C mailako antzokiak	599	661	706	736	785	%6,7	%31,1
Kostuak emanaldiko							
A mailako antzokiak	5.236	5.053	5.043	5.070	5.463	%7,7	%4,3
B mailako antzokiak	2.838	3.058	3.074	3.192	2.989	-%6,4	%5,3
C mailako antzokiak	2.350	2.185	2.649	2.685	2.757	%2,7	%17,3
Kostuen estaldura tasa							
A mailako antzokiak	%46,0	%49,1	%48,0	%54,1	%52,0	--	--
B mailako antzokiak	%35,6	%40,9	%37,8	%40,6	%37,5	--	--
C mailako antzokiak	%25,5	%30,3	%26,6	%27,4	%28,5	--	--

Oinarria: 44 antzoki*

* Ez dira sartu hiriburuetako antzoki handiak, hauen datu ekonomikoak falta direlako,

Ezta ere aztertutako bilakaera urteren batean informazioa eman ez zuten beste 5 antzoki.

Batez besteko diru-sarreraren hobekuntza formatu guztietan

Datu ekonomikoen 2013 eta 2017 urteen bitarteko bilakaerak kontratazio-gastuak eusteko joera aurkezten du antzoki mota guztietan, igoera hau nabarmenagoa da tamaina txikiko antzokietan.


Bestalde, emanaldi bakoitzeko batez besteko diru-sarrerak maila guztietan hobetu dira, C motatako antzokien ekitaldiko bilakaera nabarmengarria delarik, %30eko hazkundearekin

Testuinguru honetan, non gastuei eutsi baitzaie eta diru-sarrerak hobetu baitira, kontratazio-gastuak txarteldegiko diru-sarreraren bitartez estaltzeko tasak bilakaera positiboa jasan du maila guztietan; hortaz, 2013ko emaitzekin alderatuta, A motatako antzokiek 6 puntuko igoera izan dute, ia 2 puntu B motatako antzokiek eta C motatakoek 3 puntutakoa

3.2. Lurralde Historikoaren arabeko emaitzak

A. Jarduera adierazleak

..... 2017 Emaitzak



..... 2013-2017 Bilakaera

Adierazleak	Urtea					Bilakaera	
	2013	2014	2015	2016	2017	16-17	13-17
Emanaldi kopurua							
Araba	269	261	240	248	289	%16,5	%7,4
Bizkaia	876	885	838	838	848	%1,2	-%3,2
Gipuzkoa	583	592	535	547	638	%16,6	%9,4
Ikusle kopurua							
Araba	98.694	107.536	107.028	107.148	108.227	%1,0	%9,7
Bizkaia	251.723	246.459	232.531	274.361	240.130	-%12,5	-%4,6
Gipuzkoa	118.100	149.302	117.813	121.728	160.799	%32,1	%36,2
Emanaldiko ikusle kopurua							
Araba	367	412	446	432	374	-%13,3	%2,1
Bizkaia	287	278	277	327	283	-%13,5	-%1,5
Gipuzkoa	203	252	220	223	252	%13,3	%24,4

Oinarria: 50 antzoki

Arte eszeniko eskaintzaren jarduera osoaren erdia Bizkaian biltzen da

Arte eszenikoen eskaintzaren Lurralde Historikoaren arabeko banaketak joera kontinuista du eta 2016ko datuekin alderatuz ez da desberdintasun handirik hautematen. Halaber, 2017an SAREAn eskaini diren emanaldien ia erdia Bizkaian programatu dira, ikusle guztien %47a erakarriz.

Bestalde, Gipuzkoako emanaldien %35a eta ikusleen %31a biltzen ditu.

Azkenik, Araba hiru Lurralde Historikoen arteko biztanle gutxien dituen da eta bere eskaintza hiriburuan biltzen da. Hori dela eta, emanaldi bakoitzeko ikusle kopuru ratioerik altuena izan ohi du (emanaldiko 356 ikusle), nahiz eta emanaldi eta ikusle ehunekorik baxuenak izan (%17,0 eta %22,0 hurrenez hurren).

Gipuzkoako ikusle kopuruan hazkunde nabarmena

2013-2017 urtetako bilakaera aztertuz, eskaintzan Araba eta Gipuzkoan hazi egiten da, Bizkaian %3,2a murriztuz. Gipuzkoako ikusleen zifraren hazkundera nabarmentzen da (%36), gainera emanaldiko ikusle ratioaren hobekuntza suposatzen du. Bestalde, Bizkaia ikusle kopuruan jaitsiera erregistratzen du (-%4,6), funtzio kopuruaren jaitsierarekin batera, 2013ari dagokionez emanaldi bakoitzeko 4 ikusleen galera suposatzen du.

B. Adierazle ekonomikoak

Adierazle ekonomikoen bilakaera 2013-2017²

Adierazleak ³	Urtea					Bilakaera	
	2013	2014	2015	2016	2017	16-17	13-17
Diru-sarrerak emanaldiko							
Bizkaia	1.357	1.470	1.532	1.597	1.576	-%1,3	%16,1
Gipuzkoa	1.062	1.173	1.119	1.331	1.129	-%15,2	%6,2
Kostuak emanaldiko							
Bizkaia	3.661	3.626	3.802	3.654	3.696	%1,1	%1,0
Gipuzkoa	2.680	2.624	2.949	3.313	3.169	-%4,3	%18,2
Kostu estaldura tasa							
Bizkaia	%37,1	%40,5	%40,3	%43,7	%42,6	--	--
Gipuzkoa	%39,6	%44,7	%37,9	%40,2	%35,6	--	--

Oinarria: 43 antzoki

Gipuzkoako batez besteko diru-sarreraren eta, neurri txikiagoan, batez besteko gastuen igoera aipagarria

Bizkaiak emanaldi bakoitzeko batez besteko diru-sarrerara eta gastu kopuru handienak biltzen ditu (1.576 eta 3.696 euro hurrenez hurren), kontratazio-gastuen txarteldegiko diru-sarreraren bitarteko estaldura %42,6 delarik.

Gipuzkoan %40tik hurbil dago, emanaldiko 1.129 euroko batez besteko diru-sarrerak eta 3.169 euroko gastuak izanda.

Azken urteetan emanaldi bakoitzeko diru-sarrerek izan duten bilakaera esanguratsua da. 2017an lurralde bietako goranzko joeraren etena eman arren, nabarmenagoa Gipuzkoan, eta garrantzi gutxiagokoa Bizkaian.

Batez besteko kostuak 2013an lortutako mailaren gaintik kokatzen dira (%1 Bizkaian eta %18,2 Gipuzkoan).

2017an errentagarritasunaren hobekuntza Bizkaian baina ez Gipuzkoan (estaldura tasa)

Bizkaiko kasuan, 2013ari dagokionez, kostu estaldura tasa hazi egin da, azken urteetan bezala %40aren gaintik kokatuz. Gipuzkoan, emanaldien errentagarritasuna 4 puntu portzentual jaisten da 2013ari dagokionez.

²Arabaren informazioa ez da aurkezten ditugun datuak lurraldearen adierazgarriak ez direlako

³Ez dira sartu hiriburuetakoko antzoki handiak, ezta aztertutako bilakaera urteren batean informazioa eman ez zuten beste 5 antzoki erez



3.3. Udalerriaren tamainaren araberako emaitzak

A. Jarduera adierazleak

..... 2017 Emaitzak

Emanaldi kopurua: 1.831

Ikusle kopurua: 518.300



..... 2013-2017 Bilakaera

Adierazleak	Urtea					Bilakaera	
	2013	2014	2015	2016	2017	16-17	13-17
Emanaldi kopurua							
0-7.500	185	180	171	143	117	%23,8	-%4,3
7.501-25.000	383	387	329	389	413	%6,2	%7,8
25.001-100.000	479	533	446	429	428	-%0,2	-%10,6
100.000 <	681	638	667	672	757	%12,6	%11,2
Ikusle kopurua							
0-7.500	18.622	18.411	18.546	15.456	18.116	%17,2	-%2,7
7.501-25.000	58.490	65.180	54.715	63.412	72.540	%14,4	%24,0
25.001-100.000	95.545	116.460	94.766	96.989	97.078	%0,1	%1,6
100.000 <	295.860	303.246	289.345	327.380	321.422	-%1,8	%8,6
Ikusle kopurua emanaldiko							
0-7.500	101	102	108	108	102	-%5,3	%1,7
7.501-25.000	153	168	166	163	176	%7,7	%15,0
25.001-100.000	199	218	212	226	227	%0,3	%13,7
100.000 <	434	475	434	487	425	-%12,8	-%2,37

Oinarria: 50 antzoki

Tamaina handieneko udalerriek eskaintzaren %41a eta ikusleen %62a biltzen dute

Oro har, tamaina handiko antzokiak tamaina handiagoko udalerrietan kokatzen dira; horregatik, udalerrien tamainaren araberako emaitzak antzokien tamainaren antzekoak izan ohi dira.

Hau horrela, eskaintzaren %41a eta ikusleen %62a 100.000 biztanletik gorako udalerrietan biltzen da, eta biztanleen eta emanaldi bakoitzeko ikusle kopurua aldagaien arteko lotura nabaria da, antzokien tamainarekin lotuta.

Udallerri txikienetan ikusleak erakartzeko zailtasun handiagoa

2013tik izandako bilakaerari dagokionez, tamaina txikiagoko eta tamaina ertaineko udalerrien eskaintzak beheranzkoa joera aurkezten dute, baina 7.501-25.000 eta 100.000 biztanletik gorakoetan emanaldi bolumena handitu egin da. Hala ere, metodologian barneratu diren aldagetak kontuan izan behar dira, formatu handieneko antzokiak diru-laguntzez kanpo gehien programatzen dutenak baitira.

Bestalde, ikusle kopurua segmentu guztietan handitu da, tamaina txikiko udalerrietan izan ezik, hauetan, 2013ari dagokionez jaitziera arin bat antzematen da. Emanaldiko ikusle kopuruaren ratioa biztanle tarte guztietan areagotu da baita, udallerri handienetan izan ezik, hauek 2013ari dagokionez emanaldiko 9 ikusle batz besteko galdu ditu.

B. Adierazle ekonomikoak

Adierazle ekonomikoen bilakaera 2013-2017

Adierazleak	Urtea					Bilakaera	
	2013	2014	2015	2016	2017	16-17	13-17
Diru-sarrerak emanaldiko							
0-7.500	454	497	546	557	514	-%7,8	%13,2
7.501-25.000	928	979	1.137	1.128	1.131	%0,3	%21,9
25.001-100.000	1.819	1.911	1.927	2.111	2.023	-%4,2	%11,2
Kostuak emanaldiko							
0-7.500	2.241	2.249	2.441	2.257	2.064	-%8,6	-%7,9
7.501-25.000	2.734	2.797	3.119	3.185	3.227	%1,3	%18,0
25.001-100.000	4.194	3.921	4.246	4.171	4.305	%3,2	%2,7
Kostuen estaldura tasa							
0-7.500	%20,3	%22,1	%22,4	%24,7	%24,9	--	--
7.501-25.000	%33,9	%35,0	%36,4	%35,4	%35,1	--	--
25.001-100.000	%43,4	%48,7	%45,4	%50,6	%47,0	--	--

Oinarria: 44 antzoki

Udalerrri txikienetan finantzaketa bide osagarrien menpekotasun maila handiagoa

Logikoa denez, tamaina handieneko udalerriek emanaldiko diru-sarrera eta kontratazio-gastu handienak erregistratzen dituzte, eta baita kontratazio-gastuen eta txarteldegiko diru-sarreraren arteko loturarik onena, 25.001-100.000 biztanletik gorako udalerrietan %50tik gertuko mailak lortzen direlarik.

2013ko datuekin alderatuta, biztanle tarte guztietan emanaldi bakoitzeko batez besteko diru-sarreraren hazkundera nabarmentzen da. Bestalde, batez besteko gastuak tamaina txikiko udalerrietan bakarrik murrizten dira, baina hala ere, txarteldegia bidez laurden bat bakarrik ordaintzen da, horregatik beste finantzaketa bide osagarriak beharrezkoak dira udalerrri hauetan.

Biztanle gehiengo udalerrietan ikuskizunen errentagarritasunaren jaitziera arina

Hala ere, tarte txikienean izan ezik, hamarreko batzuk hazten dena, beste tarte guztietan 2017ak txarteldegia diru sarrerekin kostu estaldura tasari dagokionez 2013-2017 aldian emaitzen txartzea aurkezten du. 25.001 eta 100.000 biztanle dituzten udalerrien kasuan, tasa hau murriztu egiten da (%0,3) eta 25.001 - 100.000 biztanleko udalerrietan galera hau 3,6 puntutakoa da.

4.- Jarduerari loturiko aldagaien araberako emaitzak

4.1. Generoaren araberako emaitzak

A. Jarduera adierazleak

Arte eszenikoetako eskaintzan antzerkia nabarmentzen da 4 ikuskizunetik 3, eta dantza eskaintza sendotzen da

2017an zehar, 360.000 ikusle bildu dituzten 1.349 antzerki ikuskizun programatu dira, batez beste, emanaldiko 269 ikusle ekarriz. Bilakaerarekin lotuta, **antzerkiaren eskaintzaren** pisu erlatiboa 2013-2017 tarteko urte guztietan %70 baino altuago mantendu da, 2017ko ikuskizun kopurua 2013ari dagokionez pixka bat haziz. Edonola ere, ikusle kopuru orokorrak %6ko igoera izan du, eta emanaldiko ikusle ratioak %4ko igoera.


Dantza eskaintzak 20126an hasi zuen berreskurapena mantentzen du, 2017an 239 programatutako ikuskizun kopuruarekin bere maximoa lortuz, honek eskaintza osoaren %11a suposatzen du. Emanaldi hauek ia 50.000 ikusle bildu dituzte, emanaldiko 239 ikusleren ratioa lortuz. Bestalde, datu hauen bilakaeraren irakurketak, aurreko urteari dagokionez %10eko galera izan arren, ikuspegi zabalagoan bilakaera positiboa erakusten du, azken 5 urteetan ikusleen %40a baino gehiagoko igoera izanez.

Musikak eskaintzaren %13a hartzen du eta ikusleen %16a, eta emanaldiko ikusle kopuruaren ratioa 347 ikusleetan kokatzen da, azken 5 urteetako maximoa lortuz.


Genero lirikoak, azkenik, 44 emanaldirekin, SAREAko programazioan pisu erlatiborik txikiena du baina emanaldi bakoitzeko batez besteko 589 ikuslerekin, batez besteko ikusleen daturik onenak lortzen dituena da. Hala ere, lirika eskaintza azken 5 urteetan nahiko egonkorra izan da, baina gehienetan formatu handieneko antzokien programazioarekin lotuta egoten dela kontuan izan behar da.

2017 Emaitzak

Emanaldi kopurua: 1831



Ikusle kopurua: 518.300



2013-2017 Bilakaera

Adierazleak	Urtea					Bilakaera	
	2013	2014	2015	2016	2017	16-17	13-17
Emanaldi kopurua							
Antzerkia	1.275	1.237	1.187	1.186	1.305	%10,0	%2,4
Dantza	177	182	167	198	203	%2,5	%14,7
Musika	242	261	203	198	224	%13,1	-%7,4
Lirika	34	58	56	51	43	-%15,7	%26,5
Ikusle kopurua							
Antzerkia	335.623	349.008	326.215	352.780	355.984	%0,9	%6,1
Dantza	34.114	42.938	38.925	54.251	48.893	-%9,9	%43,3
Musika	68.872	75.221	56.765	63.423	78.610	%23,9	%14,1
Lirika	29.908	36.130	35.467	32.783	25.669	-%21,7	-%14,2
Ikusle kopurua emanaldiko							
Antzerkia	263	282	275	297	273	-%8,3	%3,6
Dantza	193	236	233	274	241	-%12,1	%25,0
Musika	285	288	280	320	351	%9,6	%23,3
Lirika	880	623	633	643	597	-%7,1	-%32,1

Oinarria: 50 antzoki

B. Adierazle ekonomikoak

Adierazle ekonomikoen bilakaera 2013-2017⁴

Adierazleak	Urtea					Bilakaera	
	2013	2014	2015	2016	2017	16-17	13-17
Diru-sarrerak emanaldiko							
Antzerkia	1.044	1.279	1.344	1.387	1.279	-%7,8	%22,5
Dantza	888	935	1.335	889	1.278	%43,3	%43,9
Musika	2.000	1.472	1.352	2.118	1.927	-%9,0	-%3,6
Lirika	7.458	5.516	5.117	6.311	4.774	-%24,4	-%36,0
Kostuak emanaldiko							
Antzerkia	3.030	3.138	3.255	3.331	3.111	-%6,6	%2,7
Dantza	2.837	2.351	4.055	2.975	3.206	%7,8	%13,0
Musika	4.022	3.471	3.726	4.131	5.287	%28,0	%31,4
Lirika	16.145	10.900	11.990	12.538	10.600	-%15,5	-%34,3
Kostuen estaldura tasa							
Antzerkia	%34,5	%40,8	%41,3	%41,6	%41,1	--	--
Dantza	%31,3	%39,8	%32,9	%29,9	%39,9	--	--
Musika	%49,7	%42,4	%36,3	%51,3	%36,5	--	--
Lirika	%46,2	%50,6	%42,7	%50,3	%45,0	--	--

Oinarria: 44 antzoki

Termino ekonomikoetan Antzerkiak azken urteetako joera mantentzen du

Lirika batz besteko diru-sarrera eta kostu altuenak izateagatik nabarmentzen da, eta kontratazio kostuen estaldura tasa, 2016an izandako igoera eta gero, %50etik behera kokatzen da berriz ere 2017an. Edonola, 2013ari dagokionez, diru-sarreretan eta emanaldiko batz besteko kostuetan izandako jaitsiera nabarmentzen da, %36 eta %34 hurrenez urren.

2017an **antzerkiak** 2014tik gertatzen den moduan, %40inguruko kostu estaldura tasa mantentzen du. Batz besteko diru-sarreraren kasuan, aurreko urteari dagokionez galera ematen da, baina bilakaerak joera hazkorra adierazten du, 2013ari dagokionez bere balioa %22 haziz. Bestalde, aurreko urtearekin alderatuz, emanaldiko batz besteko gastuak murriztu egin dira, bilakaera terminotan 3.000 euro ingurutan kokatuz.

Dantzaren kasuan, azken 5 urteetako emanaldiko batz besteko diru-sarreraren bilakaera irregularra izan da, baina 2017an aurreko urteari dagokionez eta baina 2013ari dagokionez, %43-44 bitarteko igoera izan du, horrela ia antzerkiaren mailan kokatuz. Gainera, emanaldiko batz besteko gastuak azken urteetan handitu arren, 2017an, aztertutako aldi guztian kostuen estaldura tasaren hobekuntza eman da (%40), antzerki generoan erregistratutako balioetatik gertu kokatuz.

Musikan, batz besteko diru-sarrerak murriztu egin dira eta emanaldiko batz besteko gastuak nabarmenki igo dira aurreko urtearekin eta 2013arekin alderatuz, aztertutako aldiko kostu estaldura tasa baxuena aurkeztuz.


⁴Ez dira sartu hiriburuetako antzoki handiak, ezta aztertutako bilakaera urteren batean informazioa eman ez zuten beste 5 antzoki erez

4.2. Ikusle motaren araberrako emaitzak


A. Jarduera adierazleak

2017 Emaitzak

Emanaldi kopurua: 1.831



Ikusle kopurua: 518.300



2013-2017 Bilakaera

Adierazleak	Urtea					Bilakaera	
	2013	2014	2015	2016	2017	16-17	13-17
Emanaldi kopurua							
Helduak/Gazteak	1.156	1.216	1.079	1.088	1.198	%10,1	%3,6
Haurrak	572	522	534	545	577	%5,9	%0,9
Ikusle kopurua							
Helduak/Gazteak	347.879	381.224	330.337	379.695	382.268	%0,7	%9,9
Haurrak	120.638	122.073	127.035	123.542	126.888	%2,7	%5,2
Ikusle kopurua emanaldiko							
Helduak/Gazteak	301	314	306	349	319	-%8,6	%6,0
Haurrak	211	234	238	227	220	-%2,9	%4,3

Oinarria: 50 antzoki

Eskaintza eszeniko anitza ikusle guztientzat

2017ko eskaintzaren bi heren ikusle heldua/gazteari zuzenduta dago, eta ikusleen %75 hartu zuen, emanaldi bakoitzeko 315 ikusle inguruko ratioarekin.

2015 eta 2016an erregistratutako emaitza kaxkarraren ondoren, ikuskizun eta ikusleen zifraren bilakaera positiboa suposatzen du. Nahiz eta batz besteko ikusleen bertaratzeak aurreko urteari dagokionez murrizketa arina izan du, baina bestalde, 2013ari dagokionez hazkundea suposatzen du.

Haurrei zuzendutako antzerkiak, 2017an 604 ikuskizun, 130.000 ikusle baino gehiago eta 218 ikusle emanaldiko izan ditu.

Hala eta guztiaz, datuek azken 5 urteetan bilakaera positiboa aurkezten dute, 2013an ikuskizun zifretan lortutako balio maximoa gaindituz, batz besteko publikoa %5ean gaindituz eta batz besteko 9 ikusle.

B. Adierazle ekonomikoak

Adierazle ekonomikoen bilakaera 2013-2017⁵

Adierazleak	Urtea					Bilakaera	
	2013	2014	2015	2016	2017	16-17	13-17
Diru-sarrerak emanaldiko							
Helduak/Gazteak	1.647	1.666	1.780	1.916	1.778	-%7,21	%7,9
Haurrak	618	688	775	842	816	-%3,16	%32,0
Kostuak emanaldiko							
Helduak/Gazteak	4.162	3.871	4.422	4.327	4.368	%0,9	%4,9
Haurrak	1.975	1.935	2.064	2.273	2.094	-%7,9	%6,0
Kostuen estaldura tasa							
Helduak/Gazteak	%39,6	%43,0	%40,2	%44,3	%40,7	--	--
Haurrak	%31,3	%35,6	%37,5	%37,1	%39,0	--	--

Oinarria: 44 antzoki

Haur ikuskizunek ekonomia terminotan bilakaera negatiboa aurkezten dute, nahiz eta kostuen estaldura tasaren hobekuntza izan

Ikusle heldua/gazteari zuzendutako ikuskizunetan, kontratazio-kostuak 4.000 euro gaintik mantendu dira 2017an emanaldiko, aurreko ekitaldiko balioaren antzera, baina 2013koa baino %5 altuagoa.

Bataz besteko diru sarrerak, 2013an hasitako joera hazkorra hausten dute 2017an, 2016ari dagokionez %7ko jaitsierarekin, baina ikuspegi zabalago batekin ikusiz, azken 5 urteetan ia %8ko igoera izan du bataz besteko sarreretan. Ondorioz, kostu estaldura tasak %40ko atzerapena egiten du, baina 2013an erregistratutakoan baino altuagoa izaten jarraitzen du.

Ikusle heldua/gazteari zuzendutako ikuskizunak erregistratzen dituzten diru-sarera eta gastu baxuagoekin, haurren antzerkiaren bilakaerak balantze negatiboa du: emanaldiko bataz besteko diru sarrerak %8ko balioaren azpitik kokatzen dira, ondorioz, 2017an 2013-2017 aldian kostu estaldura tasa onena erregistratzen da.

⁵Ez dira sartu hiriburuetako antzoki handiak, ezta aztertutako bilakaera urteren batean informazioa eman ez zuten beste 5 antzoki erez

4.3. Hizkuntzaren araberako emaitzak⁶

A. Jarduera adierazleak⁶

Euskarazko antzerkiaren joera positibo, ikusle helduari zuzendutako emanaldietan erregistratutako bilakaerari esker

Euskarazko antzerki eskaintzak, bai haurrei zuzenduta ikusleentzako eta bai heldu/gazteentzako zuzendutakoak, azken urteetan garrantzi handiagoa lortu du, 2017an bere puntu maximoa lortuz joera positiboa jarraituz.

Zehazki 2017an, euskaraz egindako emanaldiak SAREAn programatutako antzerki emanaldien %44a dira, 2016an lortutako pisu erlatiboa baino zerbait altuagoa, baina 2013-2017 aldian 2015an erregistratutako balioarekin batera altuena.. Balio absolutuei dagokionez, euskarazko emanaldiak 2016ari dagokionez %13 handitu da, eta emanaldiko ikusleak neurri handiagoan hazi dira, %20,5, emanaldiko batz besteko 14 ikusle gehiagorekin, ondorioz 2017ko balioak, 2013-2017 aldiko emaitza onenak dira. Honela, 2013 erreferentziaz hartuz, euskarazko emanaldiak %0,5 handitu dira eta ikusleak %23.

Hala ere, eskaintzak ardatz duen ikusle motaren arabera aldatzen da bilakaera hori. Ildo honetan, euskarazko haurren antzerki programazioarekin lotu izan da ohituraz, euskarazko antzerki emanaldien ia %40a ikusle helduak/gazteei zuzendutakoa da eta euskarazko emanaldien ikusleen herena suposatzen du.


Ikusle heldu/gaztearentzako euskarazko eskaintzaren bilakaera positiboa

2017an, zehazki, ikusle heldu/gazteari zuzendutako euskarazko 236 emanaldi programatu dira guztira, 39.000 pertsona bildu dituztenak, honek 2013-2017 tarteko ikusleen datuetan eta eskaintzaren datuetan hobekuntzak ekarri ditu.


⁶Azterketa honetarako antzoki ikuskizunak soilik hartzen dira kontutan

2017 Emaitzak

Emanaldi kopurua: 1.349



Ikusle kopurua: 362.835



2013-2017 Bilakaera

Adierazleak	Urtea					Bilakaera	
	2013	2014	2015	2016	2017	16-17	13-17
Emanaldi kopurua							
Euskara	559	508	521	498	562	%12,9	%0,5
Gaztelania	621	599	526	548	627	%14,4	%1,0
Testurik gabe	80	119	127	122	98	-%19,7	%22,5
Beste batzuk	15	11	13	18	18	%0,0	%20,0
Ikusle kopurua							
Euskara	95.118	90.663	105.260	96.838	116.673	%20,5	%22,7
Gaztelania	220.609	234.589	190.159	232.734	220.893	-%5,1	%0,1
Testurik gabe	16.415	20.679	25.101	19.675	11.284	-%42,65	-%31,3
Beste batzuk	3.481	3.077	5.695	3.533	7.134	%101,9	%104,9
Ikusle kopurua emanaldiko							
Euskara	170	178	202	194	208	%6,8	%22,0
Gaztelania	355	392	362	425	352	-%17,0	-%0,8
Testurik gabe	205	174	198	161	115	-%28,6	-%43,9
Beste batzuk	232	280	438	196	396	%101,9	%70,8

Oinarria: 50 antzoki

Euskarazko antzerkiaren emaitza positiboak haur ikusle eta helduetan

Haurren antzerki programazioaren barruan, euskarazko emanaldien %69 hartzen du eta ikusleen hiru laurdenak hartzen ditu.

Hala ere, euskarazko antzerkiak haur programazioan duen pisuak, mota honetako publikoari zuzendutako ikuskizunen bilakaerak euskarazko antzerkiak oro har lortu dituen emaitzetan eragina edukitzea ekartzen du

Honekin lotuta, haurrei zuzendutako euskarazko antzerkiak, 2017an 2016arekin alderatuz, emanaldien eta ikusle kopuruaren igoera du (%3 eta %13 hurrenez hurrenez). Honek emanaldiko 230 ikusle suposatzen du, 2016an baino batz besteko 19 gehiago.

Ikusle helduen kasuan, euskarazko antzerkia gaztelaniakotik urrun aurkitzen da, eskaintzaren %29 hartuz eta ikusleen %16a erakarritik. Azken urteetan programazio eta ikusle kopuruan igoera izan du (%30 eta %38 aurreko urteari dagokionez eta %23 eta %51 2013arekin alderatuz). Ondorioz, aztertutako aldi guztizko emanaldiko ikusle kopuru onena lortu du (176).

B. Adierazle ekonomikoak

Adierazle ekonomikoen bilakaera 2013-2017⁷

Adierazleak	Urtea					Bilakaera	
	2013	2014	2015	2016	2017	16-17	13-17
Diru-sarrerak emanaldiko							
Euskara	653	784	838	918	944	%2,9	%44,6
Gaztelania	1.717	2.118	2.213	2.422	1.909	-%21,2	%11,2
Testurik gabe	424	649	773	626	399	-%36,2	-%5,9
Beste batzuk	610	558	1.798	295	800	%171,6	%31,1
Kostuak emanaldiko							
Euskara	2.198	2.274	2.440	2.569	2.590	%0,8	%17,8
Gaztelania	4.395	4.371	4.629	4.738	4.028	-%15,0	-%8,3
Testurik gabe	2.151	2.771	2.619	2.705	1.934	-%28,5	-%10,1
Beste batzuk	488	470	1.888	962	1.066	%10,8	%118,1
Kostuen estaldura tasa							
Euskara	%29,7	%34,5	%34,4	%35,7	%36,5	--	--
Gaztelania	%39,1	%48,5	%47,8	%51,1	%47,4	--	--
Testurik gabe	%19,7	%23,4	%29,5	%23,1	%20,6	--	--
Beste batzuk	%125,2	%118,9	%95,2	%30,6	%75,0	--	--

Oinarria: 44 antzoki

Euskarazko emanaldien batez besteko diru sarrera eta errentagarritasunaren hobekuntza

Datu ekonomikoei dagokionez, euskarazko antzerki emanaldien batez besteko katxeta, 2.600 euro ingurukoa izan da, 2016ekoarekin alderatuta, aldaketarik gabe, nahiz eta gaztelaniazko antzerkien emanaldiak lortutako balioak baino baxuagoak izan.

Euskarazko emanaldietan 2016ari dagokionez, emanaldiko batez besteko diru sarrerak hobetu egin dira (%3), ez da berdina gertatu gaztelaniazko emanaldietan, %21 murriztu denean.

Kostuen estaldura tasarekin lotuta, euskarazko antzerkiak 2013-2017aldiko emaitza onenak lortu ditu 2017an, %36,8ko portzentajearekin. Gaztelaniazko ikuskizunetan, ia 4 puntu jaisten da tasa hau.

⁷ Ez dira sartu hiriburuetakoko antzoki handiak, ezta aztertutako bilakaera urteren batean informazioa eman ez zuten beste 5 antzoki erez

4.4. Konpainiaren jatorriaren araberako emaitzak

A. Jarduera adierazleak

SAREAren eskaintza eszenikoan euskal konpainiak nabarmentzen dira


1.041 emanaldirekin, **euskal konpainiak** 2017an SAREako antzokietan presentzia gehiago dituztenak dira. Zehazki, eskaintzaren %57a hartzen dute, eta ikusleen erdia biltzen dute. Hau zentzuzkoa dirudi euskal konpainiek formatu txiki eta ertaineko antzokien programazioan duten pisua kontuan izanik. Hortaz, euskal konpainien emanaldien %60a B eta C mailako antzokietan programatu dira, eta hauen eskaintzaren %71a eta %78a suposatzen dute, hurrenez hurren. Edonola ere, Estatuko gainerako erkidegoetako konpainien pisu erlatiboa baino txikiagoa izan arren, euskal konpainiek hiriburuetako formatu handiko antzokien eta A mailako antzokien programazioaren %42a osatzen dute. Bestalde, ikusle motarekin lotuta, euskal konpainiek haur programazioan pisu handiagoa dute, eskaintzaren %69 inguru, ikusle heldua/gaztearen eskaintzan %51a suposatzen dutelarik

Atzerriko konpainiak, emanaldi kopuruaren arabera, bigarren mailakoak dira, euskal konpainien zein estatuko konpainien zifretatik nahiko urrun daude, baina 2017an hauen presentzia nabarmen hazi da, aurreko urtekoarekin alderatuz. 2017an atzerriko konpainien 143 ikuskizun eman dira, aurreko urtean baino %31 gehiago eta 2013an baino %24 gehiago. Kontratatzeko ahalmenaren arabera zentzua du, atzerriko konpainien eskaintzaren proportziorik handiena hiriburuetako antzokietan biltzen baita (%57).

2017a euskal konpainiek ikusle kopuru handiena eta emanaldi gehien eman dituzten urtea izan da


2017a Sarea antzokietan euskal konpainiek ikusle eta emanaldi gehien erregistratu dituen urtea izan da, emanaldi kopuruan %13ko hazkundera 2016ari dagokionez eta %6 2013arekin alderatuz. Ikusle kopuruari dagokionez, %20ko igoera 2016ari dagokionez eta %38a 2013arekin alderatuz. Bestalde, atzeritik datozen konpainien presentzia handitu egin da Sarea antzokietan, 2016ko datuei dagokionez %31 emanaldi gehiagorekin eta ikusleen %11 gehiagorekin.

Emanaldi kopurua: 1.831



2017 Emaitzak

Ikusle kopurua: 418.300



2013-2017 Bilakaera

Adierazleak	Urtea					Bilakaera	
	2013	2014	2015	2016	2017	16-17	13-17
Emanaldi kopurua							
Euskadi	938	931	914	878	995	%13,3	%6,1
Espainia	646	674	594	639	636	-%0,5	-%1,5
Atzerria	115	110	105	109	143	%31,2	%24,3
Ikusle kopurua							
Euskadi	177.398	181.999	199.476	204.077	244.513	%19,8	%37,8
Espainia	261.504	280.817	228.659	257.525	221.427	-%14,0	-%15,3
Atzerria	28.343	31.590	29.237	38.401	42.784	%11,4	%51,0
Ikusle kopurua emanaldiko							
Euskadi	405	195	218	232	246	%5,7	%29,9
Espainia	380	417	385	403	348	-%13,6	-%14,0
Atzerria	246	287	278	352	299	-%15,1	%24,4

Oinarria: 50 antzoki

B. Adierazle ekonomikoak

Adierazle ekonomikoen bilakaera 2013-2017⁸

Adierazleak	Urtea					Bilakaera	
	2013	2014	2015	2016	2017	15-16	12-16
Diru-sarrerak emanaldiko							
Euskadi	873	852	946	1.130	1.103	-%2,4	%26,4
Espainia	2.222	2.553	2.476	2.271	2.196	-%3,3	-%1,2
Atzerria	961	757	1.204	932	1.061	%13,9	%10,4
Kostuak emanaldiko							
Euskadi	2.497	2.510	2.731	2.865	2.892	%1,0	-%15,9
Espainia	5.398	4.940	5.406	4.832	4.993	%3,3	-%7,5
Atzerria	2.851	2.817	3.293	3.042	3.054	%0,4	%7,2
Kostuen estaldura tasa							
Euskadi	%35,0	%33,9	%34,7	%39,5	%38,1	--	--
Espainia	%41,2	%51,7	%45,8	%47,0	%44,0	--	--
Atzerria	%33,7	%26,9	%36,6	%30,6	%34,8	--	--

Oinarria: 44 antzoki

⁸Ez dira sartu hiriburuetak antzoki handiak, ez eta aztertutako bilakaera urteren batean informazioa eman ez zuten beste 5 antzoki ere ez

Euskal konpainien eta estatuko konpainientzako txarteldegiko batez besteko diru-sarrerak txikiagotu egin dira

2017an euskal konpainien batez besteko kontratazio kostua 2.892 eurotako izan da, estatuko gainerako konpainien 4.993 euroren aurrean. Bilakaerari dagokionez, 2016ko batez besteko kontratazio kostuek %1eko igoera izan dute euskal konpainien artean, eta hamarreko handiagoa estatuko artean (%3koa). Ondorioz, aurten bien arteko diferentzuala handitu da.

Edonola ere, 2013ko datuak kontuan izanda, euskal konpainiek euren batez besteko kostuetan izandako murrizketa antzematen da (-%15,9) estatukoekin alderatuz (-%7,5).

Logika berdina jarraituz, estatuko konpainien batez besteko diru-sarrerak (2.196 euro) euskal konpainiek lortu dituztenak (1.113 euro) baino altuagoak dira ere. Baina kasu honetan, nabarmengarria da 2016ari eta 2013ari dagokionez izandako bilakaera: euskal konpainien batez besteko diru-sarrerak 2016ari dagokionez %2 murrizten dira, baina %26 igotzen dira 2013ari dagokionez. Estatuko gainerako konpainien kasuan bi datuak murriztu egiten dira, %3 eta %1 hurrenez hurren.

Hala ere, kasu bietan 2016an lortutako kostu estaldura tasak behera egin du, estatuko konpainiak %44an kokatuz eta euskal konpainien kasuan 1,4 puntu jaisten ditu aurreko urteari dagokionez.

5.- Gehien programatutako ikuskizunen Ranking

Orokorra

Ikuskizuna	Emanaldia	Ikusleak
Priscila reina del desierto	40	29.570
Go!azen 3.0	36	14.672
Txokolart	33	4.025
Hits Tricicle	32	23.310
Jainko basatia	26	4.477
Euria (Lluvia)	26	4.394

Hizkuntzaren arabera (euskaraz)

Ikuskizuna	Emanaldia	Ikusleak
Golazen 3.0	36	14.672
Jainko basatia	24	4.390
Euria (Lluvia)	23	3.891
Francoren bilobari gutuna	22	4.067
Marikixkur eta hiru hartzak	18	4.010
Tipi Tapa Korrika	17	8.422

Ikusle motaren arabera

Helduak-Gazteak		
Ikuskizuna	Emanaldia	Ikusleak
Priscila reina del desierto	40	29.570
Hits Tricicle	32	23.310
Jainko Basatia	26	4.477
Francoren bilobari gutuna	22	4.067
Koaderno zuri / Cuaderno en blanco	19	1.937
Cabaret Chihuahua	16	8.493

Haurrak		
Ikuskizuna	Emanaldia	Ikusleak
Golazen 3.0	36	14.672
Txokolart	33	4.025
Euria (Lluvia)	25	4.394
Kaput	20	1.668
Marikixkur eta hiru hartzak	18	4.010
Lorez lore	18	4.262

Konpainiaren jatorriaren arabera

Euskadi		
Ikuskizuna	Emanaldia	Ikusleak
Go!azen 3.0	36	14.672
Txokolart	33	4.025
Jainko basatia	26	4.477
Euria (Lluvia)	25	4.394
Francoren bilobari gutuna	22	4.067
Kaput	20	1.668

Kanpotarra		
Ikuskizuna	Emanaldia	Ikusleak
Priscila, reina del desierto	40	29.570
Hits Tricicle	32	23.310
Lorez lore	18	4.262
Party	12	120
Alta seducción	11	2.840
Rumba, el musical de Mayumaná	11	6.062

Oinarria: 50 antzoki

6.- Metodologia, analisi aldagaiak eta adierazleak

6.1. Apunte metodologikoak

Nola lortzen da informazioa?

Aurkeztutako informazioa homogeneizatzeko helburuarekin, datu kuantitatiboak jasotzeko metodologia aldatu da; orain arte, Sareako antzoki eta aretoetako programatzaileei haien guneetan programatutako guztiari buruzko informazioa eskatzen zitzairen. Txosten honetatik aurrera, ostera, Foru Aldundiek ekitaldian zehar diruz lagundutako programazioa hartzen da soilik kontuan; hortaz, informazio horretatik abiatuta, lortutako emaitzen egiaztapena eta hainbat datu eskatzen zaie programatzaileei. Azkenik, informazioa osatzen bukatzeko, bigarren mailako informazio-iturriak erabili ditu idazkaritza teknikoak, besteak beste: jarduera-txostenak, programazioak edo dosierrak. Informazioa osatzea, homogeneizatzea eta zuzentzea izan da helburua, adibidez, ikuskizunen eta konpainien izenburu eta izenak identifikatzeko, generoa, publiko mota, hizkuntza edo konpainiaren jatorria argitzeko, etab.

Zentzu horretan, programazio profesionalaren zatirik handiena diruz lagunduta badago ere, azpimarratzekoa da antzokien jarduera ez dela diru laguntzen eremura mugatzen; hortaz, txosten honetan aurkeztu diren datuek ez dute antzokietan garatzen den jarduera osoa jasotzen. Alderdi hori hartu behar da kontuan aurreko urteekiko bilakaerari erreparatzerakoan batik bat, datu horiek metodologia desberdina erabiliz lortu baitziren

Zer nolako erantzun maila lortu da?

Bestalde, gure informazio-eskaerek jasotako erantzun-maila altua izan bada ere, kontuan hartu behar da lortutako datuak ez dagozkiela SAREako antzoki guztiei. Zehazki, jarduera-adierazleei dagokienez, antzokien %95,1ren informazioa lortu da; datu ekonomikoei dagokienez, ordea, antzokien % 90ek eman dute informazioa. Beraz, ezinezkoa izan da oro har bi adierazle moten (ekonomikoak eta jarduerarekin lotutakoak) arteko alderaketak egitea, mailaren eta udalerraren tamainaren arabera banatutako datuen kasuan ez bada. Horrez gain, hiriburuetakako bi antzoki handiren 2017ko datu ekonomikoa ez dira lortu, eta maila horretako antzoki multzoaren aurreko urteetako informazioa ez dago osatuta; hortaz, azterketa ez indargabetzeko, ez dira datu horiek gehitu, mailaren eta udalerrien tamainaren arabera analisiaren zati bat izan ezik.

Azkenik, 2017eko datuak aurreko urteetako datuekin alderatzerakoan, kontuan hartu behar da ez gaudela antzoki bereberiei dagozkien datuak alderatzen, urte batetik bestera sarearen egituraren aldaketak izan daitezkeelako (bazkide izateari uzten dioten antzokiak edo bazkide egiten direnak); ondorioz, haien bilakaera baino, Sarea-ren panoramika orokorraren bilakaera aztertzen ari gara

Zeintzuk dira aztertzen diren azterketa-aldagai eta adierazleak?

Egin dugun azterketa kuantitatiboa osatzen duten epigrafeak eta aldagaiak erakusten ditu honako taulak.

Epigrafea	Aldagaia	Adierazlea
Sareko antzokien karakterizazioa	Lurralde Historikoa Eskualdea	Antzoki kopurua
Emaizta orokorrak EAE esparruan	EAE	Jarduera adierazleak Emanaldi kopurua Ikusle kopurua Ikusle kopurua emanaldiko
Antzokiari loturiko aldagaien araberako emaitzak	Maila ¹ Lurralde Historikoa Udalerraren tamaina	Adierazle ekonomikoak Sarrerak Sarrerak emanaldiko kostuak Kostuak emanaldiko Kostuen estaldura tasa (Sarrera./kostua)
Jarduerari loturiko aldagaien araberako emaitzak	Generoa Ikusle mota Hizkuntza Konpainiaren jatorria	

Ondoren, txostenean azaltzen diren hainbat aldagai eta adierazletara ohitzeko, horien definizioak adierazten ditugu:

ANALISI ALDAGAIK:

Lurralde Historikoa: Informazioa probintziaren arabera banatuta (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa).

Maila: Sareako antzokiak lau mailatan sailkatzen dira urtean programatutako emanaldi kopuruaren eta kontratazio-gastuen arabera: A, B, C eta hiriburuak. Probintzietako hiriburuak, haien programazio-dinamika formatu handiko ikuskizunetara bideratuta dagoenez eta horrek aurrekontu handiagoa suposatzen duenez, kategoria espezifikoak dute. Hortaz, honela sailkatuko ditugu antzokiak:

Maila	Programazio bolumena (emanaldiak)	Kontratazio gastua
Hiriburuak	50 emanaldi baino gehiago (*)	200.000 € baino gehiago (*)
A	50 emanaldi baino gehiago	200.000 € baino gehiago
B	20 eta 50 emanaldi artean	50.000 € - 200.000 €
C	20 emanaldi baino gutxiago	50.000 € baino gutxiago

(*) Hiriburuei dagokien mailan sailkatutako antzokiei, A mailarako ezarritako irizpideez gain, kokapenarena aplikatzen zaie..

Udalerrien tamaina: Udalerriak biztanle kopuruaren arabera sailkatu dira, ondorengo taulan azaldutako eremuen arabera:

Udalerriaren tamaina

7.500 biztanleraino
7.501-25.000 biztanle
25.001-100.000 biztanle
100.000 biztanle baino gehiago

Generoa: Arte eszenikoen barruko arte-diziplinaren arabera, ikuskizunak honako genero hauetan sailkatu dira: antzerkia, dantza, lirika eta musika

Ikusle-mota: Ikusleen adinaren arabera, ikuskizunak honela sailkatzen dira: Haurrentzako eta Helduentzako/Gazteentzako.

Hizkuntza: Ikuskizunak antzezten diren hizkuntzaren arabera, honako hauek bereizi dira: euskara, gaztelania, testurik gabe, bestelakoak eta orotarikoak. Gainera, antzoki batzuetan ikuskizun berberaren hainbat emanaldi programatu dira, horietako batzuk euskaraz eta beste batzuk gaztelaniaz. Halakoetan, datuak bereizteko aukerarik egon ez denean, "euskaraz eta gaztelaniaz" epigrafea erabili da.

Konpainiaren jatorria: Konpainiak honako kategoria hauetan sailkatu dira jatorriaren arabera: Euskal Herria, gainerako Estatu eta atzerria.

ANALISI ADIERAZLEAK:

Antzoki kopurua: titulartasun publikoko eta 2013., 2014., 2015. 2016. Eta 2017. urteetan programazio profesional egonkorra izan duten EAEko antzokiei dagokie. .

Emanaldi kopurua: Antzokietan eskainitako antzezpen kopurua. Kaleko ikuskizunak ez dira kontuan hartu, baina, aldiz, kontuan hartu dira antzokiek beste eremu batzuetan antolatutakoak eta Foru Aldundien diru laguntza jaso dutenak, hala nola, kiroldegietan, pilotalekuetan, etab.

Ikuskizunetara bertaratutako pertsona kopurua: Programatutako ikuskizunetara bertaratutako ikusleak. Sarrera erosi dutenak, bazkideak eta gonbidatuak hartu dira kontuan

Programatutako ikuskizunetara bertaratutako ikusleak. Sarrera erosi dutenak, bazkideak eta gonbidatuak hartu dira kontuan.

Sarrerak Txarteldegian lortu den diru-bilketa.

Emanaldi bakoitzeko diru-sarrerak: Diru-sarreraren eta emanaldi kopuruaren arteko zatidura.

Kostuak: Konpainiaren katxeta baino ez du kontuan hartzen. Ez dira kontuan hartu beste gastu batzuk, hala nola: dietak, egilearen kostuak etab., ez dugulako irizpide bateratu baten bidez antzoki guztietarako balio izango duten datu homogeneous.

Emanaldi bakoitzeko kostuak: Kostuen eta emanaldi kopuruaren arteko zatidura.

Ikusle bakoitzeko jasandako kostuak: kostuen eta ikusle kopuruaren arteko zatidura.

Kostuen estaldura-tasa: Txarteldegiko diru-bilketak zer ehunekotan estaltzen dituen konpainiak kontratatzeako kostuak (sarrerak/kostuak).

SAREA ANTZOKI SAREAREN ZERRENDA (2017)

GIPUZKOA

Bastero Kulturgunea
 Zaraia Aretoa (Arkupe Kultur Etxea)
 Amaia Udal Antzokia
 Sanagustin Kulturgunea
 Soreasu Antzokia
 Usurbe Udal Antzokia
 Zabalotegi Aretoa
 Antzoki Zaharra
 Gazteszena
 Lugaritz Kultur Etxea
 Victoria Eugenia Antzokia
 Coliseo
 Niessen Kulturgunea
 Biteri Kultura Etxea
 Itsas Etxea-Hondarribia
 Amaia KZ
 M. Lekuona Kultura Etxea
 Santa Ana Udal Antzokia
 Herri Antzokia
 Herriko Antzokia
 Leidor Antzokia
 Labeaga Udal Antzokia
 Gurea Antzokia
 Modelo Aretoa
 Aita Mari Antzokia
 Zelai - Arizti
 Baztartxo Antzokia

ARABA

Harresi Aretoa
 Auditorio Txema Blasco
 Amurrio Antzokia
 Vitoria-Gasteizko antzoki sarea (5 areto)

BIZKAIA

Zornotza Aretoa
 Lonbo Aretoa
 Klaret Antzokia
 Barakaldo Antzokia
 Social Antzokia
 Berangoko antzokia
 Nestor Basterretxea Aretoa
 Berrizko kultur aretoa
 Arriaga Antzokia
 San Agustin Kulturgunea
 Arriola Kultur Aretoa
 Ermua Antzokia
 Torrezabal Kultur Etxea
 Lizeo Antzokia
 Elai Alai Aretoa
 Getxo Antzokia
 Lasarte Antzokia
 Auditorium Kulturleioa
 Ikusgarri Aretoa
 Olalde Aretoa
 Meatzari Aretoa
 Serantes Kultur Aretoa
 Sestao - Escuela de Música
 Sondikako Kultur Etxea
 Kurtzio Kultura Etxea
 Zalla Zine - Antzokia

